

• MATTIN •



## Palestina vs 1999

GABIREL EZKURDIA ARTEAGA

ZZPP ETA SOZIOLOGIAN LIZENTZIATUA ETA BILBOKO IPESKO NAZIOARTEKO MINGEKO KIDEA

1999. urtea erabakiorra izango da Palestinaren etorkizunarentzat. Egunez egun gaia ezkortasunez aztertzeke gero eta arrazoi gehiago badira ere, ezin dugu ahaztu Palestinar Agintaritz Nazionala (PAN) udaberrirako estatu palestinarra aldarrikatzeko asmotan dagoela; horrek zer suposatuko ote du?

Ziurrenez ezer gutxi, Arafaten jarrera ikusita erronka honek ez baitu etorkizunik. Zer dela eta? Gako nagusia PANen sorrera eta garapenaren azterketan datza. Osloko akordioei esker sortua, eta beraz akordioak bezala, krisialdi sakonean dirauenez, aipatutako instituzioak bi jarrera politiko nagusi bultzatu ditu:

Batetik Palestinar Kausaren likidazioa pragmatismo politiko hipotetiko baten truke onartzea eta bestetik, pragmatismo hura instituzioa -PAN- botere autonomikoan mantetzeko defendatu eta finkatzea. Hau da Arafaten ustez palestinar abertzaletasunaren askapen estrategia bakarra: bake-akordioen bidea jarraitzea, nahiz eta emakortasuna eskasa izan, eta palestinar instituzioak lehen OLPk zuen paper hegemonikoa izatea.

Likidazionismo politikoa, hots, Israelek akordioei uko eginez jarritako egoera baldintzatuaren aurrean ezintasun nabaria, behin eta berriro islatzea da; horrekin egoera gero eta nahasiagoa bihurtuz. PANek *negoziaketa bidea* irekita mantendu arren helburu taktiko eta estrategiko guztiak saldu ditu nahiz eta azken helburu *mitikoa* behin eta berriro aipatu: Estatu alegia. Estatuari bideak itxiz etorkizuna hipotekatu du. Ala ez al da

hipoteka jasanezina estatu bat eraikitzeke, Osloko akordioetatik hasita lurraldetasunari eginko mozketak onartzea?, ez bakarrik akordioan izenpetutakoak baizik eta gero urteetan zehar eta gaur egun hain zuzen sionistek aldarrikatzen dituzten lurralde kopuruak; edota uraren aferan izandako jarrera menpekkoa; zer esanik ez atzerrian bizi diren palestinarren itzulerarena; presoak...

*Negoziaketa* kontzeptu hori mantentzearen helburua Arafaten instituzio ustelak finkatzea da. Momentu honetan PANek instituzio gisa defendatzen duena nortasun juridiko-politikoan datza. Autonomia negozio handia bihurtu da zenbait *notable* ezagunentzat. Arafaten eta bere aparatoaren helburu bakarra ez baita ideologikoa ezta abertzaletasunari lotua, ereduak gaintuz, asmoak pertsonalismoaren arabera bere burua politikoki boterean ziur finkatzea da eta hor salbu eta egonkor ikustea besterik ez dauka, nahiz eta kausa palestinarrentzat bakegintza-prozedura honek jarraitzeak gero eta baldintza okerragoak ekarri subirotasun estatutari eta eraikuntza nazionalari.

Wye Plantationeko akordioak esandakoaren adierazle dira. Clintonek Arafaten Institutuzioen keinua lortu du: Palestinar Institutuzioek Israelgo estatu onartzea. Horren truke Arafatek Clintonen bisita historikoa *gozatu* eta Israeldarren haserre mediatikoa besterik ez du lortu. Hurrengo egunean Wye Plantationen aurkakoei mezua: Irakek jasanadako eraso militarra. Azken finean EEBBek Mediterraneoan aze-

narioa eta Golkoan egurra, betiko jokoa. Alde batetik argi adierazi NBERen gaintetik eta EBren gaintetik EEBBek eta hain zuzen anglofonoek dutela Gerra Hotzaren ondorengo nazioarteko ordeinuaren giltza, Europarrei Dayton inposatu zieten bezala (eta Kosovon egun yankien bitartekaritza da nagusi bakegintza prozedura hipotetiko horretan) eta Ekialde Ertainean gauza bera.

Wy Plantationek porrot egiten badu (honezkero hilda dago) Irak da USAtarren *chivoa* edo mamu beltza, (beste arrazoi batzuen artean noski) jakinda inperialismo amerikarraren kontrako eredu sinbolikoa Saddam bihurtu dutela eta bera izango dela gehien benefiziatuko dena Palestinako porrotaren ondorioei esker.

1999. urtean Palestina estatua garatuko al da? Hori litzateke aukera bakarra xenofobia sionistatik alde egiteko eta etorkizun itxaropentsuago batekin amets egiteko, baina tamalez Israeldarrek maiatzerako deituko dituzten hauteskundeek *apartheid* politikoa finkatzeko tresna bideratzaile hutsa izango direlakoan gaude. Eta hori azpimarkatzeko ez dago dudarik; izan ere, Israeldarren inpunitea akordioetan hitzemandakoari uko egiteko estatubatuarrek ematen dieten kobertura datza, hots, momentuz eta tamalez luzera begira, nazioarteko jendarmearena. Eta badakizue, jakina da jakin, inpunite osoa *jendarmeak* bakarrik duela, beno berak eta Barrionuevok eta Verak. Baina hori beste kontu bat da...

UR APALATEGI

### Euskal telebangelismoaren aroa



Poderearen sinbolo ekoizpenak bi funtzio betetzen ditu. Lehena, poderearen autopromozioarena («ni naiz ederrera, begira zer zoriontsu egiten zaituztedan...»). Bigarrena, zilegiztapenarena. Erregimen demokratikoetan, argudio nagusia honakoa da: «herriaren

gehiengoak hautatu nauenez zuen irudi gorputza besterik ez naiz». Eta noski, Telebista da, egun (garai batean Eliza edo Eskola ziren legez), sinbolo horien hedabide eraginkorrena. Hauteskuendeen inguruan eman den mapa politikoaren berregituraketaren haritik, euskaraz edo euskal herritarren izenean mintzo zaizkigun telebista kate bixkiek inoiz ez bezalako enpatxu sinbolikoa ezagutu dute.

Euskal komunikabide ofizialen norabide aldatetarako dagoeneko ondorioztapenak egitea baitmentzen du, bere azken emaitza ikusgarriak go-goan ditugula. Bat. Gobernatu ahal izateko demokrata gisa agertzea ezinbestekoa bada, nola jakin nor den benetan demokrata eta nor ez? Ez du merezi alderdien programen irakurketan denbora galtzea. Orain badakigu. Benetako demokrata telebistan maiz bere aburuak defenda ditzaikena da. Zenbat eta filmaia baldintza hobetan (hurbileko planoak, soinuaren kalitatea), are demokratagoa izango da alderdia. Bi. Telebista ez da tresna interaktiboa, are gutxiago demokrazia zuzenaren bektorea. *Bai Euskarari* bezalako tele-saioak agerian uzten duen gauza bakarra da -bere garaiean *Ermuko izpiritu*a saioak erakutsi ziregun bezala- aktorea ez dela pantailan agertzen den jendea, baizik eta pantaila bera, bere indarrari esker eragindako masa mugimenduak harrotasunez erakusten dituelarik.

Telebista guk aurretik programatuta «zu zara ederrera» esaten digun ispilu bat besterik ez da, baina atzean errealtatea dago. Gizarte euskaldun eta demokratiko *virtual* batean bizitzeak badauka goxotasunik -batez ere urteetan marginazio mediatikoa jasan duenarentzat-, baina ez dezagun ahantz goxotasun hori ere birtuala dela ispilutik at aurrerapausoak emango ez diren bitartean.

#### ...kornerra

MIKEL ELORTZA

#### Mamugintzan

Datak jartzen hasi dira zenbait (erne!, gogoratu Elkarri), eta European kide oso bezala jardungo dugula laster. Kontra daudenak bortizki haizatzen dituzte adierazpenok, mamuak sortzeko. Mamuok hartu beharko genituzke, eta hezur eta haragiz bete, fikzioak oinarria beti errealtatean duelako. Kanpo Arazoetarako Sailsa sortu beharko litzateke. Harreman diplomatikoei ekin (lehenak Espainia eta Frantziarekin; estreinako Kataluniara jotzeak zailantza kutsua du); nazioarteko auzietan iritzi berezitua eskaini, kanpo politika egiten hasi... Oraingoz fikzioa da, beste lehentasunik bada. Baina kezka sortzen dira. Europako kide eta, hain zuzen, NATOk kide izanen ginateke? Gasteiztik Marokora arma mordoa saltzen dugula eta Sahararen auzian beste aldera begiratu beharko genuke?

Mamuena ez da badiren edo ez; haiengan sinesten denentz baizik.